

noaia

Udalak ez du etxegabetze
prozeduretan parte hartuko

Hondakinen sortzez besteko
ordainketa sistema, aztergai

Babarrun eta sagardo
onenen bila, igandeko
Santo Tomas Azokan

Larunbat honetan, jostailu erabilien azoka

Berrerrabilpena
sustatzeko beste modu bat



URDAIRA

Sagardotegia
Sagardo naturala
Abenduak 22 BARRIKOTEA
20.00h Urdairan
astelehenak itxita

Aginaga
943 37 26 91



GOSARIAK

USURBILGO


IRATXO
TABERNA

943 374 330

BORDABERRI 5
 USURBIL

*Asteburuetan
 plater berriak!!*

ORDUTEGI BERRIA DAUKAGU!
 Astelehenetik ostiralera,
 07:00 -14:00 eta 17:30 - 22:30



Öinutsik
 podologia zentroa

IREKIERA BERRIA
ABENDUAREN 17AN!

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia

Puntapax 6B, behea ezkerre
 Tel. 943 11 09 54



Udazken - Neguko
 denboraldia

Marije
 Arropa denda

Etxebeste 3 - 943 36 11 06 - USURBIL

Albisteak iruditan

Zumetari buruzko "Ametsaren Koloreak" dokumentala diruz lagunduko du Udalak

Bere lan egiteko modua, obrak, etorkizuneko erronkak...", Jose Luis Zumeta artistaren ibilbidea jasoko duen "Ametsaren Koloreak" izeneko dokumental bat grabatzen dabil Moztu Filmak ikus-entzunezko enpresa. Atzerapenik ez bada, 2013rako prest izango dute. Usurbilen estreinatuko dute, oraindik zehazteke badago ere, ziurrenik Zumetari buruzko erakusketa irekitzearekin batera.

Usurbilgo Udalak Zumetaren inguruko egitasmo hau diruz lagundu du. Azaroaren 28an lankidetzara hitzarmena sinatu zuten Potxoenean, alkate Mertxe Aizpuruak eta Moztu Filmak ekoiztetxeko ordezkari lurre Telleriak.

Udalak ezinbestekotzat eta garrantzitsutzat jotzen du dokumental honetan bidelagun izatea, "Usurbilgo herria eta bertako seme den Jose Luis Zumetaren ibilbide luzearen erakusle-hoa izan dadin". Alkatearen esanetan, "atsegina da hitzarmen hau sinatzea". Bere hitzetan, Usurbilek "harro sentitzeko motibo asko ditu" eta. Tartean, Zumeta bera.



Alkatea eta Moztu filmak ekoiztetxeko arduraduna, hitzarmena sinatzen.

Moztu Filmak ekoiztetxeak Zumetaren sortetiko udalaren laguntza izatea garrantzitsutzat jotzen du. Are gehiago, Usurbildik kanpo finantziarioa lortzeko izan dituzten arazoak kontuan izanda. "Gainerako finantziarioa lortzea asko kosta zaigu. Ia uztekoan ere egon

ginen", adierazi zuen Telleriak hitzarmena sinatzeko ekitaldian. Baina ez. Egitasmoarekin aurrera jarraitu dute, eta atzerapenik ez bada, 2013an "Ametsaren Koloreak" dokumentala ikusgai izango dugu. Estreinaldia, Usurbilen.

Laburrean

Udal liburutegia Gabonetan

Abenduaren 22tik 25era (biak barne) udal liburutegiko ateak itxita izango dira. Abenduaren 29tik urtarrilaren 1era arte (biak barne) ere, berdin.

Parekidetasun Kontseilua

Ostegun honetan 19:00etan, Potxoenean. "Herri-tar eta eragile guztiak gonbidatzen ditugu bertan parte hartzera", luzatu du gonbita Nerea Altxu udal teknikariak.

Akatsak zuzentzen

Erle eguneko haurren marrazki lehiaketako izen bat gaizki zegoen, ez zen Lier Barrenetxea sari-tuetako bat. Izen zuzena hauxe da: Lilien Li Barrenetxea-Arando.

noqua


Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpuru.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpuru.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Aizpea Aizpuru.
Banaketa: Aloña Esnaola,
Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpuru, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Ugaitz Agirre

Buruari galdezka

Balkoira ateratzen naizen bakoitzean argi gehiago ikusten ditut leihoetan ipiniak. Koloretako argiak piztu eta itzali egiten direnak. Kristalaren beste aldea zuhaitzen siluetak ikusten dira. Eta hotza airean elurra egiteraino.

Plazetan zuhaitza handiak ipinazitu dituzte udalak kolore gorritzko bolekin apainduta. Dendak goitik behera apaindu dituzte, plaza nagusiak jaiotza montatu dute eta kanpasoindun abestiak entzuten dira tabernetako bozgoragailuetatik.

Telebistak ere ez du etenik gabonak anuntziatzeko garaian. Bada denbora iragarki komertzialak bata bestearen atzetik ikusi ditudala denek opari egokiena eskaintzen. Olentzerorik ez dut oraindik ikusi, itzultzen garenerako utziko dugu hau.

Baina egia esan behar badizut momentu honetan irakurtzen ari zaren irakurle, urtetik urtera grazia gutxiago egiten nauten festak dira Gabonak. Horrela jarraitzen badu kontuak gorrotatzearaino iri-

tsi beharko dut, baina hau urte batzuetara edo askora tratatu beharreko gaia izango da.

Pentsatzen dut ene ikuspuntu hau argudiatu beharko dudala, gauzak esateagatik esatea bakarrik ez omen da oso egokia. Baina ni izan beharrean zergatik ez zara zu nire ikuspuntua aztertzen saiatzen?

Erronka onartzen duzu? Ez baduzu onartzen ez duzu lerrook irakurtzen segi behar, denbora galtzea izango baita.

Betiko argudiaketari hautsapur bat ken diezaiogun, egia da kontsumismoarekin duen lotura ukalezina dela; masa-kontsumoa; berezko zituen baloreak galtzen ari dela; saltzen diguten irudi estereotipatuak; zorientasuna, bakea, maitasuna, laguntasuna bezalako hitz potoloak edozein ahotik iriten direla; egungoak ez duela jatorrizko gabonen antzik... Hau guztia seguru noizbait pentsatuko zenuela. Eta iristen diren bakoitzero pentsatuko dituzu. Antolatuko dituzte han edo hemen Gabo-

netako kontsumismoari buruzko hitzaldiak, Jainkoaren jaiotza ospatzeko elizkizunak ere egingo dituzte, egunkari edo aldizkarietako artikuluetan irakurriko dituzu nola dena loturik dagoen eta telebistaren edota filmeen bidez manipulatzen gaituztela estereotipoak, erritualak, erosketak eta beste hainbat gauza urteko egun hauetan egin beharreko gauzak direla esanez.

Ez nator anti-gabonen esloganak egitera. Interneten egongo dira seguruenik nik hau idatzi aurretik ere. Denbora galtzea litza-teke, plagio bat egitea, nire gaitasunari muzin egitea. Eta hori ez dago ongi, ez, ez... hasi nahiz adar eta hodeietan barrena galtzen. Barkaidazu, ez zen nire asmoa. Segi dezagun gurearekin oraindik irakurtzen ari bazara eta zerbait zentzuzkoa irakurri nahiko baituzu, bada garaia eta.

Eta eslogan horiek irakurri nahi badituzu bila itzazu, esan bezala Interneten egongo dira. Edo akasoz manifestazio edo protesta bat

antolatzen dute eta bertan oihukatuko dituzte. Ez, beste gauza bat dut buruan sartuta, proposamen bat zuri egiteko. Eta honetarako aurreko guztia? Aurreko dena irakurtarazi nauzu proposamen bat egiteko bakarrik? Lasai, nik idatzi egin dut, absurdoaren gorapimen bat egiteagatik, beste batean azalduko dizut ideia hau.

Nire proposamena: gustuko dugu sarri azalpenak azaltzen dituzten moduan ikustea, baina ipin diezaiogun berezko ukitu bat, Karlosek perrexilarekin egiten duen moduan. Jarri azalpen edo ekin-tza orori zergatik bat aurretik. Afari eta bazkaritako janaria erostean, etxekoei edo lagunei opariak egitean, gabon kantuak abestean, Urte Berriko erritualetan, Urte Zaharrez jateko zerbait eskaintzean, lagunekin zerbait hartzera joatean, urte berria opatzean, bromaren bat egitean, errege opila jatean... galdegiozu buruari zergatik egiten duzun. Bitartean ongi bizi geroz eta egun gutxiago geratzen baitira festarako.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | **Ugaitz Agirre** | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre

Ika-Mika

Ixiren mahaia

Uribe familia ezagutzen dugun usurbildarrok badakigu senide ugari direla. Seme-alaba eta biloben artean, Kalezarreko etxean joan-etorriak etengabeak eta otorduak jendetsuak izan ohi dira. Halere, joan den abenduaren 3an beste bazkalder bat espero zuten, aspal-diko partez.

Hemezortzi urte eta erdi igaro dira Ixiren mahaian bere txokoa hutsik geratu zenetik, 1994ko ekainaren 5 hartan Guardia Zibilak Ramon preso eraman zuenetik hain zuzen. Espainiak bere legeak beteko balitu, duela urte batzuk etxeratua behar zuten, baldintzapeko askatasunean.

Madrilek, ordea, bestelakoa erabaki zuen eta, beste euskal preso andana bezala, espetxean segi zuen. Orain, ezarri zioten zigorra osorik beteta, irteteko eguna finkatua zuen hilaren 3rako. Baina, berriro bere legeak moldatu eta 197/2006 doktrina aplikatu dio Audientzia Nazionalak.

Topaseko kartzeleko atean zain zituen senide eta lagunak, ezintasuna eta amorrua irentsi, eta herrira itzuli ziren Ramonik gabe. Bizitzan makina gorabehera aurre egin behar izan duen Ixirentzat, beste ezbehar berri bat. Jon anaia gazteena, berriz, zergatia galdezka eta galdezka, uler-tezintasunean itota.

Ez da harritzekoa. Salbuespeneko neurri hori Unai Paroti lehen aldiz aplikatu ziotenetik, beste 65 euskal presoan (Ramonekin 66) senide eta lagunak ere egoera krudel eta surrealista bera ezagutu dute. Guri bezala, euskal gizarteko gehiengoari ere ulergaitza egiten zaio, are eta gehiago Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren ebazpenaren ostean eta konponbide justu eta iraunkorrerako urrats tinkoak egiten ari diren honetan.

Herritarrek, ordea, bizkor eta irmo erantzun dute kalean. Elkartasun adierazpen ederra izan da, benetan. Aurrerantzean ere bide bera jorra-

tzeko prest daudela erakutsi digute, ondotxo baitakite herri-mobilizazioa dela bi Estatuen itxikeria eta jokamolde errepresiboa aldarazteko tresna eraginkorra.

Gabon hauetan Ixiren mahaian Ramonen tokia hutsik segituko du, Euskal Herriko beste mahaia askotan bezala. Baina, berak eta gu guztiok badakigu milaka eta milaka herritarren bihotzetan txoko kuttunena dutela eta ezinbesteko bidelagun ditugula aulki horiek lehenbailehen betetzeko ahaleginean. Ramon eta gainerako preso eta iheslariak etxean nahi ditugulako.

Usurbilgo Etxerat

Udalak ez du etxegabetze prozeduretan parte hartuko

Etxegabetze kasuen berri noiz-nahi eta nonahi jasotzen ari gara. Azaroan, gai honi lotuta bi lagunek bere buruaz beste egin zuten Hego Euskal Herrian. Azaroaren 27ko osoko bilkuran, etxegabetzeen aurka Bilduk aurkeztutako mozioa onartu zuen udalbatzak aho batez.

Etxegabetzeen aurrean, hainbat neurri hartu asmo ditu Udalak:

“1- Udal honek, etxegabetze denak denbora mugagabeen bertan behera uzteko esijitzen du. Herritarren eskubideen defentsa bermatzeko legediaren aldaketa esijitzen dugu. Era berean, herritarren etxebizitza eskubidea babesten du, gai honetan bankuek eta Espainiako Gobernuak duten jarrera ozen salatuz.

2- Udal honek, ohiko etxebizitzaren jabetzaren baitan ematen diren etxegabetzeak ezezik, alokairu erregimenaren baitan ematen diren etxegabetzak ere bertan behera uzteko esijitzen du, Banku, Kutxa, Kooperatiba eta entitate publiko eta pribatuaren jabetzakoak diren kasuetan. Banku, Kutxa eta kooperatiba guztiei, udalarekin duen harremanagatik bereziki Kutxabank-i, inongo kasutan ohiko eta lehen etxebizitza kaleratzerik gehiago ez egiteko esijitzen diogu.

3- Udal honek, etxegabetzeen gaiarekin duten jarreraren arabera kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu.

4- Udal honek, herritarren jakinaren gainean utziko du etxegabetzeen gairen aurrean banku, kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera. Herritarrei informazio zehatza emateko konpromisoa hartzen du.

5- Udal honek, ohiko etxebizitzaren etxegabetzea nozitu duten herritarrei



Bilduren mozioa aho batez onartua izan zen.

zein egoera horren arriskuan daudenei informazioa eta laguntza emateko baliabideak jarriko ditu; etxegabetzea ekiditeko helburuarekin, dagokion entitate finantzarioarekin harremanetan jarriaz. Kaltetuen eskura, telefono zenbaki bat eta Email bat jarriko dira.

6- Udal honek, ez du etxegabetze prozedurarik bultzatuko eta beraietan parte hartuko. Era berean bide horretan parte hartzeari uko egiten dioten udal langileak babestuko ditugu.

7-Udal honek, etxegabetzeen aurka lanean ari diren gizarte eragileekin elkarlanerako duen prestutasuna adierazten du. Egoera elkarrekin aztertu eta dagokigun eremuetan urrats sendoak emateko konpromisoa hartzen dugu.

8-Udal honek, subirautea politikoa esijitzen du, gure etxebizitza politika egin ahal izateko eta Madriletik inposatzen zaizkigun neurri neoliberal basatiak nozitu beharrik ez izateko”.

BOSGARREN KREDITU ALDAKETA, ONARTUA

2012ko Aurrekontuei loturiko bosgarren aldaketa da, Atallun pabilioia egiteko lanetarako zuzendua. Guztira, 70.000 euroko diru partida bideratuko du Udalak. Proposamenaren alde bozkatu zuen Bilduk. Gainerako udal taldeak abstenitu ziren. Onarpena behin betikoa da.

Kutsadura elektromagnetikoa gutxitzearen alde

Aho batez, kutsadura elektromagnetikoa gutxitzearen alde agertu ziren alderdi guztiak azaroaren 27ko plenoan. Ere-mu honetan ardura duen gobernu taldeko zinegotzi Jose Maria Rivadeneyrak aurkeztu zuen gaia, udalbatzaren aurrean. Gai honetan, iaz Europar Batasunak hainbat gomendio jarraitzea jasotzen duen ebazpen bat onartu zuela berri eman zuen. Aholkuetako batzuk "udalei betetzea egokitzen zaizkie" adierazi zuen. Eta udal talde guztiek adostuta, azaroko osoko bilkuran aurkezturiko mozioak, "bat egiten du Europako Kontseiluko Legebiltzarkideen Batzarrek, 2011-5-27 egunean onartutako bere 1815 ebazpenarekin".

Mozio honen bidez, beste pauso bat ere ematen du Usurbilgo Udalak. "Usurbilgo Udal Batzarra, aipaturiko ebazpenean jasotzen diren gomendioak Usurbilgo eraikin publikoetan ezartzearen alde agertzen da, Gipuzkoako Batzar Nagusiek bere ebazpen batean eskatutakoari kasu eginez". Rivadeneyrak gogorazizuenek, Eusko Legebiltzarrak ere aho batez onartu du kutsadura elektromagnetikoa gutxitzeko Europako Kontseiluaren ebazpena, eta Jaurilaritza aintzakotzat hartzea ere eskatua dio.

PALESTINARREN ALDEKO MOZIOA

Israelen azaroko erasoaldi militarren aurrean, palestinar herriari "babesa, elkartasuna eta errespetua" adierazi zion udalbatzak, hilaren 27ko osoko bilkuran, Usurbilgo Elkartasun Taldeak aurkeztu eta onartu zuten mozioaren bidez. Lau puntuko testuan zera galdegiten da, "Israelgo Gobernuak bere betebeharrak bete ditzan, Nazioarteko komunitateari presionatzeko dauzkan baliabide guztiak erabil ditzala eska diezaiola" eta "Israelek palestinar biztanleak menperatzeko apartheid politikorekin jarraitzen duen bitartean, BDS (boikot, desinbertsio eta zigorrak) kanpainarentzat babesa eska dezala".

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Ramon Uribek etxean egon

Abenduaren 3an askatu behar zuten baina Parot doktrina medio, espetxean jarraitzen du

Espetxe zigorra beteta abenduaren 3an ka-
lean behar zuen Ra-
mon Uribe herrita-
rrak. Baina azken unean jaki-
narazi ziotenez, Parot Doktri-
na aplikatu eta ondorioz bes-
te 12 urtez, zigor osoa bete
arte, 2024ra arte luzatu diote
espetxealdia. Albistea jakin
bezain laster, Uriberen egoera
salatu eta kalezartarrari, seni-
de eta lagunei elkartasuna
adierazteko hainbat ekimen
antolatu ziren Usurbilen.

Aske uzteko eskaerak bere-
hala hasi ziren heltzen. Lehe-
na, Uriberen eskutik. Senide-
en bidez zabaldu zuenez,
“irribarrea eta borroka” hori-
xe Topasetik usurbildarrei he-
larazi nahi izan zien mezua.
Usurbilgo Herrira bilgunetik
ere, berehala kaleratu zuten
urgentziatzko oharra, “Usur-
bilgo Herrirak gogor salatzen
du bahiketa berri hau eta he-
rritarrek mobilizatzeraz dei-
tzen ditu”. Ines del Rio euskal
preso politikoaren kasuagatik
Estrasburgok espainiar esta-
tua kondenatu zuenetik, Pa-
rot Doktrina aplikatzen zuten
lehen aldia zela ohartarazten
zuten.

Abenduaren 3rako antola-
tua zegoen ongi etorria, pro-
testa eta elkartasun mobiliza-
zioan bihurtu zen. 300 lagu-
nek baino gehiagok parte har-
tu zuen, “Ramon askatu. Bizi



“Bizi arteko zigorrak ez” eskatu zuten herritar ugari, Dema-plazan egin zuten agerraldi publikoan.

arteko zigorrak ez” lemapean
Kaxkoan burutu zen manifest-
aldi zaratatsuan. Aurretik,
Mikel Laboa plazan batzar in-
formatiboa burutu zen. Uri-
beren egoera bidegabekoa agra-
rian geratu zen bertan, ez ba-
karrik gogorarazi zuten mo-
duan, Salamancara joandako
senideek, “zoritxarrez baka-
rrik etorri behar” izan zutela-
ko. Usurbilgo Herri Batzarre-
ko ordezkariak Uriberekin
gertatu zenaren berri ematen
ari zirela jaso zuten azken or-
duko albistea. Azaroaren
29tik aplikatua ziotela Parot
Doktrina kalezartarrari eta
erabakia irmoa zela gainera.
Aipatu moduan ordea, preso
zegoen Uriberi ez zioten jaki-
narazi berria. Albistea, aben-

duak 3 zituenean eta etxean
behar zuenean jaso zen.

HELEGITEA AURKEZTU DUTE

Gertaturikoaren aurrean, Ra-
mon aske uzteko helegitea
aurkeztu dute. Erantzuna ja-
sotzeko martxora arte itxaron
beharko da ordea. Ines del Rio
presoaren kasuak, Uriberenari
bezala, “argitzeke dauden bes-
te 80 sententziei eragingo dien
edo ez, ez dakigu” zioten ba-
tzar informatiboan.

Salaketa gehiago. Etxerate-
tik Uriberen egoera baloratu
zuten. “Espainiako gobernu-
ari beste behin zigorra beteta
duten gure senide eta lagu-
nak aske uzteko exijitu nahi
diogu, euren eskubideak eta

gureak errespetatu daitezken.
Eta bide batez, Estrasburgok
hartutako erabakia bete eta
Ines del Rio eta doktrina apli-
katuta duten eta espetxean
mantentzen dituzten beste 65
presoak aske uzteko ere exiji-
tu nahi diogu”.

Ezker Abertzaleetik ere ka-
lezartarrarekin gertaturikoa
salatu zuten, “giza eskubide-
en urraketa larria delako”.
Gaineratzen dutenez, “Parot
doktrina irregularra da, giza
eskubideen bermea urratzen
duelako. Horrela zioen sen-
tentziak. Baina Espainiako
estatuak muzin egiten dio
Europako Auzitegiari, muzin
egiten dio Nazioarteko Zu-
zenbideari eta baita Giza Es-
kubideen Deklarazioari ere”.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**BENTA
TABERNA**
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3. esk. USURBIL

behar zuen jada

Uriberekin hartu duten erabakia, Euskal Herriaren aro politiko berriarekin inolaz ere ez datorrela bat dio Ezker Abertzaleak. Indarrak metatzeko deia egin zuten.

Usurbilgo Udaleko alkateztatik ere beste hainbeste, salaketa mezua. "Usurbilgo alkate bezala, krudelkerian eta mendekuan oinarritutako erabaki hau salatu nahi dut. Eta nirea ere egiten dut Ramon Uribe berak, egoera honen aurrean, bere senideen bitartez usurbildar guztiei zabaldu nahi izan duen mezua: Irrifarra eta borroka!". Euskal presoen gaian, Espainiak mendekua baino ez duela baliatzen gaineratzen zuen Aizpuruak.



Usurbilgo Herri Batzarrek Ramon Uriberen egoeraren inguruko mozioa aurkeztu zuen. Bertaratu ziren alderdi denek bat egin zuten mozioarekin.

Herriko ordezkari politikoen jarrera eskertu dute Herri Batzarreko kideek

Ramon Uribe aske uzteko eskaera bere egin zuen baita, Usurbilgo Udaleko udalbatzak. Abenduaren 5erako, ezohiko eta premia osoko bilkura deitu zen. Usurbilgo Herri Batzarrek Ramon Uriberen egoeraren inguruan aurkezturiko testua, osoko bilkurara bertaraturiko udal talde guztiek babestu zuten; Bildu, Aralar, Hamaikabat eta EAJ-PNVko ordezkariak.

Senideen izenean hain zuzen,

mozioa aurkeztu zuen Herri Batzarreko ordezkariak eragile politikoei erakutsitako jarrera eskertu zuten, udalbatza aretora hurbildu ziren Ramonen senide, lagun eta hainbat herritarren aurrean.

Aho batez onarturiko testuak hiru eskaera jasotzen ditu: Espainiako Gobernuak presoan eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetze politika aplikatu dezala eskatzea; Espainiako Gobernuari Europako

Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko uztailan emandako epaia bete dezala eskatzea, eta, ondorioz, lehenbailehen 197/2006 indargabetua izan dadila "eta gure herrikide Ramon Uribe libre utz dezatela, 2012ko abenduaren 3an bere zigorra bete baitzuen"; eta azkenik, usurbildarrei erabaki honen berri ematea eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezen animatzea.

Udalbatzak soilik ez, herritarrek ere Ramon Uribe askatzea eskatu zuten, Herri Asanbladak deituta joan den abenduaren 6an Dema plazan burutu zen agerraldian. "Ramon askatu! Bizi arteko zigorrik ez!" zioten kartelak eskutan zituztela, komunikatu bat irakurri zen ekitaldian. Ramon eta bere egoera berean dauden beste 65 preso bahituak dituztela gogorazti zuten eta, honenbestez, berehala aske uztea eskatzen zuten.

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelekttrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Adinekoen egoitza egitasmoa ez dago geldirik, gobernu taldearen esanetan

Ez da egia ez dutela ezer egin nahi, hitzokin erantzun zion Mertxe Aizpurua alkateak, Usurbilgo PSE-EE taldeak eraikitze dagoen zahar egoitzaren inguruan azaroaren 27ko osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioari. Bertan, aipatu egoitza modu planifikatu batean eraikitzeko Udala eta Aldundia akordio batera heltea eskatzen zuten sozialistek.

PSE-EEkoen esanetan, "Aldundia arazoari konponbidea eman gabe dabil oraindik. Bakarrik esaten du, plaza gehiago eskaini nahi dituela, baina ez du konponbideren bat kudeatzen". Gogorarazten zuenez, joan den maiatzean, Irun, Usurbil eta Elgoibarko adinekoen egoitzak sustatzea eskatzen zuen mozioa onartu zen Batzar Nagusietan. Eta horren aurrean, PSE-EEkoen mozioak dioenez, Batzar Nagusiek onartutakoari, "gobernu foralak ez dio jaramonik egiten". Egoera honek, Usurbilgo adinekoak kanpora joan beharra edota itxaron zerrendetan egotea eragiten ari dela zioen sozialisten bozeramaile Ricardo Crespok aurkeztu zuen testuak.

ERAIKI BAINO LEHEN, PLAZAK BETETZEA LEHENTASUNA

Horren aurrean, mozioak jasotakoa gezurtatu zuen gobernu taldetik, alkate Mertxe Aizpurua. Bere esanetan, egitasmoa "ez dago geldituta. Ez dira utzieriaz ari gai honekin". Udala eta Aldundia hartu emanetan direla eta elkar-lana badela gaineratu zuen. Bere esanetan, "epe motzera seguru ez da egingo. Epe ertain batera, ordea egin daiteke".

Epe motzera adinekoen egoitza egitasmoa gauzatzeko modurik ez izatearen arrazoa ere azaldu zuen Aizpurua.



Kalezarren, seroren egoitza bota zuten tokian joango litzateke erresidentzia.

"Ongizate Departamendutik eraikin berri bat egin baino lehenago, plazak bete behar direla diote", adierazi duen alkateak. Zentzuz jokatu nahi dutela.

MATIA FUNDAZIOAK EZIN DIO INBERTSIOARI AURRE EGIN

Batzar Nagusiek Irun, Elgoibar eta udalerri honetan adinekoen egoitza proiektuak sustatzeko hartutako erabakiari buruz ere zenbait argibide eman nahi izan zituen alkateak. Batetik, Usurbili buruzko hitzarmenik dagoenik ukatu zuen. Elgoibarkoa, 2011ko udal hauteskundeak baino astebete lehenago hitzartu zela, eta Irungoa sustatzeko aipatu hauteskundeak izan eta bi egunera. Aldundiak bai bideratua duela diru partida bat Usurbilgo adinekoen egoitzarako, 50.000 euro, alkatearen esanetan. Baina argi denez, Aizpurua azken bilkuran esan zuenez, "diru horrekin ezer gutxi egin daitekeela esan zitzaigun". Honez gain, arazo ekonomikoak tarteko, Matia Fundazioak ere une honetan, inbertsio honi ezin diola heldu gaineratu zuen.

"Jende asko doa beste erresidentzietara"

Gai honen inguruan ere, hitza hartu zuen Aralarrek. Usurbilen, adinekoen egoitzaren beharra badela adierazi zuen Joxe Ramon Furundarenak. Bere esanetan, "jende asko doa, beste erresidentzietara". Foru Aldunditik egoitza publikoak bultzatu beharko litzatekeela adierazi zuen. Eta honenbestez, mozioari lotuta, "desblokeatzea eskatzen dena aurreko proiektua bada", abstenituko zirela iragarri zuen.

EZ ZEN ONARTUA IZAN MOZIOA

Gauzak hala, mozioak ez zuen behar besteko babesa jaso, ez zen onartua izan. Bilduk aurka bozkatu baitzuen, Aralar abstenitu zen. Testuarekin bat egin zuten aldiz, PSE-EE, EAJ-PNV eta Hamaikabat taldeetako udal ordezkariak.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

NIKEL AKADEMIA

Talde murritzatuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitateak
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

Otar-Goxo

Elizagaia

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42

Zubiaurrenea 5

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**




**Babarrun eta
sagardo **lehiaketa****

Abenduaren
igande goizez

16an

*Bazkideak,
azaldu zaitezte
frontoira opariaren
bila!!



noqua

“Tipi-Tapa” ekimenak baditu lehen sarituak

Hurbilago Usurbilgo Merkatarien eta Ostalarien Elkarteko saltoki eta jate-txeetan xahutzeko 300 euroko erosketa-balea irabazi dute Agus Martinez eta Haritz Jau-regi herritarrek.

Saria zozketa bidez egokitu zitzairen, abenduaren 2an estreinakoz Kaxkoko bost tabernetan ospatu zen “Tipi-Tapa” ekimenaren baitan. Gogoan izan, Hurbilago elkarteko kide diren Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernekin bakailoarekin eginiko pintxo bereziak prestatu zituzten. 2 euroren truke dasta zitezkeen, urteko ardoa, sagardoa edo txakolinarekin lagunduta. Pintxoak dastatzen zihoanak tabernetan eskuragarri ziren “Tipi-Tapa” txartelean, taberna bakoitzeko zigiluak lortzeko aukera zuen. Bost tabernetan, pintxo bereziak dastatu zituenak, bost zigiluak lortu eta 300 euroko erosketa-balearen zozketan parte hartzeko aukera zuen. Haritzek eta Agus bezala. Hala egin zuten, eta orain, 1142 zenbakidun txartelaren bi jabeek Hurbila-



Irabazleak, saria eskuetan dutela.

HURRENA, GABONETAN “Errege egunean ospatuko da Tipi-Taparen bigarren saioa”

go elkarteko saltoki edota jate-txeetan, nahi duten moduan xahutu ahal izango dute aipatu diru kopurua.

URTARRILAREN 6AN BERRIZ

Gainerakoek, saria irabazteko hurrengo “Tipi-Tapa” ekimenaren hitzordura arte itxaron beharko dute. Bost zigilu baino gutxiago dituzuenok, ondo gorde txartela, hurrengo “Tipi-Tapa”n falta zaizkizue-

nak lortu eta zozketan parte hartzeko modua izango duzue eta. Errege egunean, urtarrilaren 6an ospatuko da bigarren saioa. 2013an zehar, hileko lehen igandeetan burutuko da ekimena, ekainera arte. 300 euroko erosketa-baleen zozketak aldiz, bi hilean behin burutuko dira. Hurrengo honenbestez, otsaileko lehen igandean.

“Tipi-Tapa” ekimenak, estreinako egunean, harrera ezin hobea izan du. Ikusi besterik ez zegoen, Txiribogan, Aitzagan, Bordatxon, Artzabalen eta Txapeldun tabernetan zegoen jende mugimendua.

Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak salgai

Argiaren Lagunak taldekoen eskutik, urtero eguberrietan Pirritx, Porrotx eta Marimotots Oiardo Kiroldegian izaten ditugu. Aurten, “Sentitu, pentsatu, ekin!” izeneko ikuskizunarekin datoz, abenduaren 22an. Bi saio eskainiko dituzte; lehena 16:00etan, bigarrena 18:30etatik aurrera.

Sarrerak aldeztu aurretik erosi ahal izango dira, 7 eurotan, Marije arropa dendan, Bordatxo tabernan edo Oiardo Kiroldegian bertan. Emanaldi egunean ere, sarrera eskuratzeko aukera izango da, 8 euroren truke.

Olentzerojira prestatzeko entsegua

Abenduaren 24an goizetik iluntzera ospatuko diren gabon kantak abesteko hainbat hitzordu antolatzen ari dira herrian. Tartean, Herrira mugimenduak eta Kantu Taldeak antolatutako Olentzerojira ospatuko da, hilaren 24an. Ekimena prestatzeko ordea, entsegu saioa deitu dute hilaren 18rako, 19:00etan Artzabalen.

Zumarteren gabonetako kontzertua, 23an

Eguberrietako kontzertua eskainiko du Musika Eskolak abenduaren 23an. Salbatore Elizan, eguerdiko 12:30ean hasita, Zumarte-Txiki Abesbatzak, Zumarte Talde Bokalak, Zumarte Gazte Abesbatzak eta Zumaiako San Pedro Abesbatzak parte hartuko dute.

Gure Pakea elkartearen zuzendaritza berria hautatzeko garaia da

Gure Pakea elkartearen estatutuen arabera, zuzendaritza batzordearen %50a berritu behar da (ahal dela 2 emakumezko eta bi gizonezko), 2013ko urtarrilean egingo den Batzar Nagusian.

Hori dela eta, hauteskunde epe bat ezarri da, hautagaiak aurkez daitezkeen. Abenduaren lehenean ireki zen epe hori

eta abenduaren 22ra arte iraungo du zabalik.

Gure Pakeako edozein bazkide aurkez daiteke hautagai gisa. Hiru modu daude hautagaitza aurkezteko:

- Artzabalgo bulegoan, astearte, asteazken eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara.

- Helbide elektronikora idatziz: gurepakea@gmail.com

- Bulegoko telefono zenbakira deituz: 943 368 770.

Argibide gehiago Gure Pakeako bulegoan jaso daitezke.

ABENDUKO EKITALDIAK

Abenduak 21 ostirala, txistor jana Artzabalen, 18:00h.

Abenduak 22 larunbata, gaztain jana Artzabalen, 18:00h.

Preso ohiei eta iheslariei laguntza eskaintzeko jaio da Harrera elkarte

Espetxetik atera berritan, edo erbestetik iritsi eta berehala, egoera berrira egokitze denbora behar izaten da. Ondo dakite hori preso ohiek. Denbora eta asesoramendua. Behar horiek asetzeko jaio da Harrera elkarte. Abenduaren 20an osteguna aurkeztuko da elkarte Potxoenean, 19:30ean hasiko den ekitaldian. Joxe Domingo Aizpuruak eta Oihana Lizasok Harreraren eginkizunak zeintzuk izango diren ezagutzera animatu nahi gaituzte.

Zerk eragin du Harrera elkarte eratzeari?

Joxe Domingo Aizpuruak. Aspaldi, preso ohi eta iheslari batzuk konturatu ginen kaleratzeko garaian zer nolako hutsuneak eta gabeziak zeuden, batez ere hainbat arazo tekniko eta administratiboei aurre egiteko garaian. Hausnarketa baten ondoren, pentsatu zen premia zela elkarte bat sortzea. Etxeratzen joango diren presoak eta iheslariei beharrezkoa den laguntza tekniko hori eskaintzeko. Hausnarketa horrek bultzatu gaitu Harrera elkarte gisa osatzea, premia horiei erantzuteko modu legal batean.

Elkarte osatuta dago, bera?

Oihana Lizaso. Elkarte eratuta dago. Laguntza tekniko eskaintzeko sortu da baina faktore emozionala ere hor dago. Espetxean edo erbestean bizi den egoera ez da bizimodu normal baten parekoa. Horregatik, etxeratzean edo lagunartera



Oihana Lizasok eta Joxe Domingo Aizpuruak eman digute Harreraren berri.

ABENDUAREN 20AN
“Ekitaldia arina izango da. Ikus-entzunezko bat eskainiko da eta ondoren merienda modukoa egingo dugu”

iristean, Euskal Herrian bizi dugun erritmora egokitu behar da eta horretarako denbora behar da. Laguntza eskaintzeko beharra ere badago.

Funtzio hori izango luke Harrerak. Preso ohiei eta iheslariei sustengua eskaintzea, ezta?

J. D. A. Harreraren eginkizuna izango da kaleratzen dihoaztenei edo garai politiko berri honetan kaleratzen edo etxeratzen joango direnei laguntza tekniko eskaintzea. Paperak egiten lagundu, osasun arazoak dituztenei medikua bilatzen

lagundu, lana, etxebizitza... Laguntza hori guztia eskainiko dion elkarte, hori izango da Harreraren eginkizuna.

Abenduaren 20an aurkeztuko duzue elkarte Potxoenean.

J. D. A. Harrera sortzearen zergatiak eta eginkizunak zeintzuk izango diren azalduko dira eta herritar denei deia egin nahi diegu, bilera zabal horretan parte har dezaten.

O. L. Aurkezpene bera motza izango da, gero solasaldi modukoa egingo da. 19:30ean hasiko da ekitaldia, Potxoenean.

Preso ohiak ahal dugun neurrian laguntzen dugu. Harrera taldeak bere funtzioa beteko du, baina herritarrek inplikatzeko ere garrantzitsua izango da prozesu honetan denak garelako funtsezkoak.

Elkarte nazio mailan osatu da, ezta?

J. D. A. Bai, elkartearen egitura nazio mailakoa izango da. Ez da, hala ere, preso ohiek sortutako elkarte bat. Harreran ere badaude preso izan ez direnak, bestelako lan edo ofizioetako jendea, elkarte partaide egin direnak.

Harrera elkartearen aurkezpene Potxoenean

Abenduak 20 osteguna

19:30 Potxoenean. Aurkezpene txiki baten ondoren, ikusentzunezkoa eta ondoren solasaldia. Amaieran, merienda. Herritar denei irekia dagoen ekitaldia izango da. Joxe Domingo Aizpuruak eta Oihana Lizasok adierazi digutenez, arina izango da aurkezpene.

Agur Mendi Asteari, oraingoan omendu eta guzti

Akabo aurtengo Mendi Astea ere. Irteera, proiektzio edota hitzaldiak izan dira edizio honetan. Baina oraingoan, baita Andatza Mendizale Elkartek egitarau ofizialetik kanpo gordea zuen ekitaldi sorpresa bat ere. Aldez aurretik iragarri moduan, hilaren 29rako Sutegin, Josu Bereziartuaren, "Broad Peak 2010, hastapenetara itzulera" izeneko ikus-entzunezkoaz gozatu ahal izan zuten, auditorioa ia bete zuten herritarrek. Bereziartua ere ekitaldian bertan zen, aurkezle lanak egin zituen lehenik, eta bere esperientziari buruz galderak egiteko aukera izan zen proiektzioa eta gero.

Iragarri bezala baita, Andatzakoek udazken honetarako deitua zuten II. Argazki Lehiaketako sariak banatu ziren. Amaitu eta berehala etorri zen sorpresa. Aurtengo Mendi Astea, Andatza Mendizale Elkartekoek hiru herritar mendizale beterano omendu nahi izan dituzte; ondoko irudian ageri diren, Miel Arrastoa,



Miel Arrastoa, Martin Agirresarobe eta Prudentzio Egiletak makil bana jaso zuten opari gisa.

Martin Agirresarobe eta Prudentzio Egileta. Hirurek oroigarri gisa, Sutegiko oholdza gainera igo, eta Josu Bereziartuaren eskutik,

makila bana jaso zuten bertaratutakoen txalo artean eta Kerman Errekondo herritarrek abesturiko bertsoekin batera.

**ZEU ZARA
PROTAGONISTA**


Zornitza / Barnitegia

Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
info@zornitzakobarnitegia.com
www.zornitzakobarnitegia.com
Tel: 94 630 63 04

Rezolatarrak nagusitu ziren Andatzaren II. Argazki Lehiaketan

I. Argazki Lehiaketako sariak banatu dira. Aurtengoan, antolakuntzak proposaturiko gaia Oria ibaia zen. Errioa erretratatu behar zuten, ekimenean parte hartzera animatzen zirenek. Guztira, 32 lan aurkeztu dira. Horien artean, epaimahaiak hiru onenak aukeratu zituen iragan Mendi Astea. Bitxikeria moduan, sendi bereko aita semeak izan dira, aurtengo sarituak:

1-"Ispilu Margotua": Joxe Mari Rezola Azurmendi. Saria: 100 euro.

2-"Urak dakarrena": Arkaitz Rezola Mendikute. Saria: 75 euro.

3-"Aliriko zubipetik": Jokin Rezola Mendikute. Saria: 50 euro.

Sariak auditorioan banatu ostean, erakusketaretoan, lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak ezagutzeko aukera egon zen. Baita antolakuntzak prestaturiko luntx ederra dasatzeko ere. Mendiko segurtasun eta ekipamendua hizpide zuen hitzaldiarekin hasi zuten



Andatzara igo ziren eta ondoren Patrin bazkaldu zuten. Horrela amaitu zen Mendi Astea.

Mendi Astea, Andatzakoek urtean zehar eginitako irteeretan ateratako argazki eta bideoen proiektzioarekin jarraitu, eta Mendi Astea amaitzeko, Andatzara igo ziren. Mendi astea omendutakoak ere elkartziren Andatzako gailurrean.

Zerk sortu du krisia? Lehentasuna etekin ekonomikoak metatzeari ematea, ez pertsonen bizitzari eta zainketari.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana

Azaroaren 25eko adierazpen instituzionalarekin bat

Udal talde guztiek aho batez onartu zuten Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Eguneko adierazpen instituzionala. Testu honen bidez, zenbait konpromiso hartzen ditu Usurbilgo Udalak.

Batetik, "indarkeriari aurre egiteko politika integralari dagokionez, mota desberdineta-ko neurriak hartu beharko ditugula kontuan, besteak beste heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak".

Bigarrenik, "hitzetik ekin-tzetara" pasatzea, "emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko".

Eta hirugarrenik, Udalak bi-



Aho batez onartu zen azaroaren 27ko plenoan.

MOZIOAN JASOA

"Biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du"

tartekoak jartzeko konpromisoa hartzen du, "autodefentsa feministaren beharra transmititu eta emakumeek lanketa berezia egin dezaten".

Emakume gazteen aurkako erasoak ugaritzen ari diren honetan gainera, "udaletxe honek Beldur Barik progra-

maren oinarriak onartzen dituzten lan-tresna bezala, gazteriaren artean prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzeko".

BESTE EREDU SOZIAL BATEN BEHARRA

Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko, emakume eta gizonen arteko pakekidetasunean oinarritutako den beste eredu sozialerantz pausoak emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak, berriki onartu den mozioaren bitartez.

Hezkuntzako parte hartze prozesuaren bilera Potxoenean

Abenduaren 19an, 18:30etan Potxoenean bilduko dira berriaz, hezkuntzako parte hartze prozesuko parte hartzaileak. Bigarren faseko azken bilkura izango da eta aurreko saioko ildoarekin jarraituko dute; irtenbideen lanketarekin alegia. Datorren bileran erabakitakoa gauzatzen joateko pausoak lantzen hasiko dira gero, urtarrean hasiko den parte hartze prozesuko hirugarren eta azken fasean.



Bigarren faseko azken bilkura izango da abenduaren 19koa.

Inauterietan

Erraldoiekin

kalejiran ibili nahi?

Nobedaderik izango da 2013ko otsailaren 9an ospatuko den Inauteri jaialdian. Herritarren laguntzaz, Kaxkoan barrena ospatuko den erraldoien kalejira umoretsu bat antolatu asmo dago. 10-70 urte arteko herritarra izan eta erraldoiekin jai giroan murgildu nahi baduzu, eman izena NOAUA!ko egoitzara etorrita, 943 360 321 telefono zenbakira deituta edo email bidez elkarteak@noaua.com helbidera idatziz, abenduaren 21a baino lehen. Apuntatzen direnekin, erraldoien kalejiran ateratzeko entseguak burutuko dira urtarrean zehar, Inauteriak heldu arte. Erraldoiekin ibiltzen aditua den Aitor Aiestaran gazte añorgarrak eskainiko du ikastaroa.

Herri bideak txukuntzen



Jai egunik ez, Itayak gazte taldeak, Usurbilgo Udalak, Usurbil Zero Zabor taldeak eta Andatza Mendizale Elkartek dei-

tuta auzolanean igaro zuten abenduaren 6ko goiza zenbait herritarrek. Herria Garbi II. Eguna ekimenaren baitan, herri bideak txukun-

du eta hondakinak biltzen arituziren. Bazen bai zer garbitua, goiko argazkiak erakusten duen moduan.

“Usurbil bezalako herri euskaldunak nahi ditugu Euskal Herri osoan”

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, ekimen desberdinak burutu ziren herriko ikastetxeetan. Adierazpena kaleratu zuen bestalde, udal gobernu taldeak.

“Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Urtero, gure hizkuntzaren aldeko aldarrikapenak egiteko egun sinboliko bihurtu da. Egutegian gorritz azpimarratua dagoen egun bakarra izan ordez, urteko egun guztiek gogorazi beharko ligukete euskararen eguna ez dela abenduaren 3a bakarrik: egun orok izan beharko lukeela euskaraz bizi eta hitz egiteko eguna.

Usurbilgo herria Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) partaide da. Usurbilen euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzen zaigu. Esparru publiko nahiz pribatuan gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea dugu usurbildarrok.

Zoritxarrez, euskaraz bizitzeko eskubidea ez da Euskal Herri osora zabaltzen. Iparral-



Abenduaren lehenean, Donostian egin zen manifestazioaren irudia.

dean, esaterako, euskarak ez du berezko estatusik. Nafarroan aldiz, kolonizazio garaiak diruditen marra imaginario batzuek bereizten dituzte euskaraz bizitzeko aukerak.

Bide luzea du euskarak aurretik; beti oztupoz bete da torren bidea. Baina euskaldun guztion lana da euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzea. Dena den, gure lehen egitekoa euskara bera esparru guztietan erabiltzea da; gu-

gandik abiatuta, euskararen haize freskoak zirimola sordezan Euskal Herri osoan.

Aspalditik gatoz eta urrutira goaz: gure lehen betebeharra da euskararen haize freskoak zirimola sortzea Euskal Herri osoan.

Usurbilgo Udal Gobernu Taldeak bat egiten du bihar, abenduak 1, Kontseiluak Donostian “euskaraz bizi nahi dugu” lelopean antolatu duen manifestazioarekin. Era berean, usurbildar guztiei bertara-

tzeko deia egiten diegu, gurea den hizkuntzan bizitzeko eskubidea guztion artean aldarrika dezagun. Usurbil bezalako herri euskaldunak nahi ditugu Euskal Herri osoan. Euskaraz bizitzeko eskubidea Aturritik Ebrora zabal dadin aldarrikatu nahi dugu, euskaldun guztiok gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea bermatua izan dezagun.

Usurbilen, 2012ko azaroaren 30ean, Usurbilgo Udal Gobernu Taldea”.

Milaka lagun, euskaraz bizitzeko eskean

Euskaraz bizi nahi dugu aldarriak, milaka lagun batu zituen Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperatan, abenduaren 1ean, Kontseiluak Donostian deitu zuen manifestazioan. Hotzari aurre eginez, Anoetako futbol zelai parean hasi eta Bulebarrean amaitu zen mobilizazioan euskaraz bizitzeko nahia adierazi zuten herritarrek. Euskaraz lan egin, hitz egin, gozatu edo jolasteko nahia. Antolatzaileek,

Gipuzkoako hiriburuan buruturiko manifestazioa herri gogoa berpraktikatzeko inflexio puntua izango dela diote.

“GURE GARAIA IRITSI DA”

Egun berean lau urte lehenago zendu zen Mikel Laboaren abestiak entzungai izan ziren manifestazioan zehar eta mobilizazio amaieran, haren abestietako bat ere jo zuten: “Gure hitzak”.

Kontseiluko idazkari nagusi

Paul Bilbaok manifestazio amaieran zioenez, “gure garaia iritsi da, lagunok, euskaraz bizi nahi dugunon garaia. Eta horretarako formula magikorik ez dago, pasioa, determinazioa eta lana baizik. Gutako bakoitzak geure burua bihurtu behar dugu eragile. Hemen bildu garenetako bakoitzak, zuotako bakoitzak, aukera du eragile bihurtzeko, euskaraz biziz eta euskaraz bizitzearen arabera jardunez. Parte

hartzen dugun gune guztietan gure nahia mahai-gaineratuz, ikusgarri bihurtuz”.

ERABAKI AUSARTEN BEHARRA

Era berean, arduradun politikoei euskaraz bizi ahal izateko, euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko erabaki ausartak hartzera deitzen dituzte, “eta lasai egon daitezela, erabaki zuzenak hartuz gero, euskalgintzak tresnak prest ditu”.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN AMETSAK.

**“IKASITAKOA EGUNERO
PRAKTIKAN JARTZEA ZUK
GUSTUKO DUZUN HORRETAN,
HORI DA NIRE AMETSA!”**

Lorea Mendizabal,
Gastronomia eta Sukaldaritza
Arteetako 2.mailako ikaslea.



PREST

mn
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE · **ABENDUAK 15** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI · **ABENDUAK 13** osteguna, 18:00

BIDASOA · **ABENDUAK 15** larunbata, 11:00

**Gastronomia Zientzien
Fakultatea-Basque Culinary Center**

DONOSTIA · **ABENDUAK 15** larunbata, 10:30

Ate Irekiak ONLINE

ABENDUAK 18 asteartea, 18:30

<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



“Abenduaren 21ean 16:30ean, Haur Eskolan bilduko gara denak”



Euria eta hotza beraien agerraldia egiten ari dira pixkana gurean. Soka hartu eta herriko zokoak miatzeko aukera gutxitzen ari zaigu. Horrek ez du esan nahi ordea Haur Eskolako haurrak triste geratzen garenik, gure egunerokotasunak aurrera darrai eta guk gurean jarraitzen baitugu.

Azken aldian, Erle Eguna eta Euskaren Eguna izan ditugu hizpide. Argitxo izeneko iratxo baten inguruan ibili gara jolasean eta saltoka, xarma berezi bat bado izaki horrek!

Laster, negua, hotza, elurra eta gabonak iritsiko dira, eta horiekin batera, guretzako horren preziatua den Olentzero. Egun batzuk ditugu aurretik gure Haur Eskola apain-apain jartzeko. Ilusioz hasi gara gabon kanta ikasten eta Olentzeroen inguruko istorioak entzuten. Aurpegi ere aldatu egiten zaigu Olentzero hitza entzuten dugunean. Milaka galdera etortzen zaizkigu burura. Zein izango ote da? Nolako ote da? Zalantza? Zirrara!...

Dena den, ilusio handiarekin, zuekin, herrian ospatu nahi dugun egun berezi hau prestatuz goaz, mimoz eta gogoz. Abenduaren 21ean, 16:30ean Haur Eskolan bilduko gara denak, Olentzero, Kottoño astoa, Mari Domingi, Trikitilariak, gu

eta gure laguntxoak, familiak... Urduri jartzen gara pentsatu hutsarekin! Eta herrian zehar kalejiratxo bat egingo dugu guztiok batera. Gabonetako abesti zaharrak gogora ekarri eta arratsalde berezi honi frontoian amaiera emanaz.

Materiala berritzeko premia dugunez, beste bide batzuk asmatu eta jorratzeko ekintzak egitea besterik ez zaigu gertzen. Horregatik, txistorra pintxoak, sagardoa eta gaztain erreak jarriko ditugu salgai frontoian, ibilbide amaieran.

Haur Eskolarako guretzat egokiagoa den materiala erosteko asmoz inguruko guztiak jarri ditugu lanean, guraso, lagun, hezitzaile... Gizartean horren zabaldua dauden plastikozko objektu eta jostailuak apur bat baztertu eta egurrezko materialez hornitu nahi dugu gure Haur eskola hau. Egurrezko laberintoak, kaxoiak, pasabideak, espalderra... gure filosofia aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak zaizkigu.

Beraz, abenduaren 21ean herrian zehar kantari aritu ondoren, frontoira gertutazera animatzen zaituztegu. Gabonei hasiera emateko modu polita izango da! Guk Olentzerori eskatuko dizkiogu, baina agian karga gehiegi izango da berarentzat...

Haur Eskolako haurrak

Leteren doinuekin amaitu zen Kulturaldia

Jon Sarasuarekin amaitu da aurtengo NOAUA! Kulturaldia. Jende ugari ibili da ekitaldi denetan, eta baita azaroaren 30ean Sutegin egin zen “Leterekin Kantu Berbetan” saioan ere, Kantu Taldekoekin batera antolatutako ekitaldian.



Jende asko batu zen Sutegin.

Elkarte Arteko XV. Mus Txapelketa larunbatean

Aginaga, Andatzpe, Mahaspildegia, Eguzki, Yoko Garbi, Aitzaga, Erroizpe, Peña Pagola eta Ibai Ondo elkarteak urteroko lehian murgilduko dira larunbat honetan. Urtero elkarte batek hartzen du antolaketa-ardura eta elkarte horretan bertan ospatzen da mus txapelketa finala. Aurten, Aginagakoari egokitu zaio. Finala larunbatean 17:00etatik aurrera, Aginagako elkartearen.

Seaskako egutegiak eta loteria salgai, Udarregin

Seaskako egutegia Ikastolako Idazkaritzan eskuratu daiteke. Gabonetako loteria ere bai. Txartel bakoitza 5 eurotan. Zenbakia 41.477 da.

Dokumentala Sutegin

Igande honetan 18:00etan, “Tximeletak, etengabeko metamorfosia” Sutegin. Antolatzailea: Gazte Zukgua.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO


Errazkin S.L.
igeltzeritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

2014an abiatu daiteke Usurbilen hondakinen sortzez besteko ordainketa

Oraindik nolabait esateko, diagnosi fasean dago, egitasmoaren bideragarritasuna aztertzen dabilta, baina dena aurreikusi bezala badoa, 2014an Usurbilen indarrean egon liteke hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema berria. Hala gertatzen bada, Euskal Herrian halakorik aplikagarri egiten duen lehen udalerrian bihurtuko gara. Sistema berri hau, erabiltzaile bakoitzak sortzen duen hondakin kopuruaren eta hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik egiten duen erabilaren arabera ordaintzean oinarritzen da. Hau da, zenbat eta hondakin gehiago sortu, orduan eta gehiago ordaindu behar. Euskal Herrian oraindik kontu berria izan arren, mundu mailako 10.000 udalerrietan baino gehiagotan indarrean dute sistema hau; Italian, Belgikan, Suitzan, Alemanian, baina baita AEB-tan ere. Hemendik gertuen, horietatik lau esperientzia abian dituzte 2009az geroztik, Herrialde Katalanetan.

Gai hau sakonago ezagutzeko aukera izan zen, Usurbilgo Udalak eta Usurbil Zero Zabor taldeak antolatuta, azaroan burutu zen Hondakinen Prebentzio Astearen baitan. Sutegin jorratu zen gai hau hizpide zuten hitzaldian eta bertan, bi



Sutegin egin diren jardunaldietan aztergai izan dute sortzez besteko ordainketa sistema.

adituk parte hartu zuten.

Batetik, ordainketa sistema hau jada aplikatzen duten Herrialde Katalanetako Argentona udalerriko udal ingurumen teknikari Joan Pujolek eta "Environment and Management" (ENT) taldeko kide Ignasi Puigek. Puig bera, hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema Usurbilen martxan jartzeko bideragarritasun lana egiten dabil. Lan honen lehenengo datuak aurkeztu zituen Sutegin. Otsailerako amaitua izatea aurreikusten du.

EREDUA ERABAKITZEKE

Beste ezer baino lehen, gogorazi beharra dago, hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema aplikatzen dela jada Usurbilgo komertzioetako hondakinen bilketan. Orain, aipatu

sistema udalerriko etxeetan indarrean jartzea bideragarri ote den edo ez aztertzen dabilta. Puigek Sutegin berri ematen zuenez, sortzez besteko ordainketa abiatzeko faktore bat baino gehiago alde ditu Usurbilek. Besteak beste: lau hondakin zati atez ate biltzea, herritarren %90ak atez ateko bilketan parte hartzea, sistema honen emaitzak onak izatea, aipatu moduan sortzez besteko ordainketa komertzioetan jada indarrean egotea, larrialdi guzueen funtzionamendu ona, kaleko zabor ontziak gaikako bilketa egiteko egokituak izatea, eta Garbigune bat edukitzea.

Baina garrantzitsuenak, sistema hau zer modutan gauzatuiko litzatekeen erabakitzeke dago. Zein hondakin zatirekin aplikatu sortzez besteko or-

dainketa sistema; erreusarekin bakarrik, ontzi arinekin baita...

Ordainketa sistemaren eredu ere aukeratu beharko litzateke; poltsekin, ontziekin,... nola gauzatu. Eta hondakinen tasa ere nola aplikatu pentsatu beharra dago. Tasa bitan zatituko litzateke; hondakinen tasa berriak, zati finiko bat izango luke (zati hau ere, irizpide batzuen arabera modu desberdin batean aplikatu beharko litzatekeen erabakitzeko asmoa dago) eta zati aldagarri bat. Ordainketa sistema hau, noiz jarri indarrean, hori ere erabakitzeke dago. Puigek data bat proposatu zuen: 2014ko urte hasiera hain zuzen, egitasmo honek aurrera egin eta dena aurreikusi bezala badoa.

Kataluniako Argentonan, poltsa kopuruaren araberako tasa

Orain arte adierazitakoa adibide batekin laburbiltzeko, Herrialde Katalanetan, zehazkiago esateko Argentonan martxan duten hondakinen sortzez besteko ordainketa ereduaren ezaugarriak azaldu zituen, bertako udaleko ingurumen teknikari Joan Pujolek.

Hondakinak atez ate biltzen dituen 12.000 biztanleko udalerri honetan, bitan zatitua dute, hondakinak sortzeagatik herritarrek ordaindu behar duten tasa. Tasa honek zati finiko eta zati aldakor bana du. Zati finikoagatik herritar guztiek diru kopuru bera ordaindu behar dute. Zati aldakorrerako

ordea, poltsen eredu baliatzen dute bertan. Hau da, herritarrek erreusa eta ontzi arinen zatia etxe atarira ateratzeko, Udalak banatzen dituen poltsak eskuratu behar dituzte. Zenbat eta poltsa gehiago eskatu, orduan eta gehiago ordaindu behar dute. Pujolek berak, ordainketa sistema

honen aldeko apustua egin zuen Sutegin. "Atez ateko bilketa martxan jarri ostean, eman beharreko hurrengo urrats natural" gisa definitu zuen ordainketa sistema hau aplikatzearena. Herrialde Katalanetan lau udalerri indarrean dute tarifa hau. Eta gehiagotara hedatuko dela aurreikusten du.

Jendetsua aurten ere, Usurbil FT taldea



Azaroan "familia" argazkia atera zuten Mikel Laboa plazan. Bertan dira jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak.

Argazkia ikusi besterik ez dago, 2012-2013 denboraldi honetan ere jokalaria, entrenatzaile edota

zuzendaritzako kideen artean, Zumetaren mural aurrea txiki geratu zen. Usurbil Futbol Taldeak bilguneko urteko argazkia atera zuen azaroan.

Abenduak 15, larunbata
9:30 Infantil mutilak F-11.
11:00 Infantil neskak F-8.
15:30 Neskak.
17:30 Jubenilak.
Tokia: Harane.

Usurbil Judo Kluba nagusi, Gipuzkoako Txapelketan

Abenduaren 2an, Hernanin ospatu zen Gipuzkoa mailako judo txapelketan lehiatzen izan zen, Usurbil Judo Klube-ko ordezkari bat. Senior mailako 15 judoek parte hartu zuten, baita infantil mailako beste seik. Web orri bidez jakitera eman dutenez, beste behin, emaitza ezin hobekak eskuratu dituzte:

SENIORRAK

- 60 kg Andoni Aizpurua (urrea)
- 66 kg Alain Roman (urrea)
- 66 kg Iñigo Mitxelena (zilarra)
- 73 kg Xabier Cazorla (urrea)
- 73 kg Ion Martin (zilarra)
- 81 kg Beñat Aburuza (zilarra)
- 100 kg Egoitz Mora (urrea)
- +100 kg Iker Lizarribar (urrea)
- 48 kg Eneritz Agoñes (zilarra)
- 48 kg Naroa Sanchez (brontzea)
- 52 kg Aiora Arrillaga (urrea)
- 52 kg Miriam Gonzalez (zilarra)
- 63 kg Andrea Arruabarrena (zilarra)
- 70 kg Nerea Arruti (urrea)

INFANTILAK

- 46 kg Iñigo Mate (3. postua)
- 66 kg Josu Ruiz (1. postua)
- +66 kg Mikel Formoso (1. postua)
- 40 kg Valeria Herraiz (1. postua)
- 44 kg Mafer Carazas (1. postua)
- 48 kg Alba Vicente (1. postua)

San Silvestre herri lasterketan parte hartzeko izen-ematea irekia dago

Urte hau ere lasterka amaitzeko aukera izango da, III. Hurbilago San Silvestre herri lasterketa ospatuko baita abenduaren 31n. Aurreko edizioen ildotik, 17:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta Kaxkoan barrena 2 kilometro inguruko ibilbidea osatu behar dute parte hartzaileek.



Abenduaren 31n, arratsaldeko 17:00etan hasiko da lasterketa.

ZOKKETAK LASTERKETA AMAIERAN

Amaieran, Hurbilago elkarte-ko kide diren saltokietan xahutzeko 30 euroko erosketa baleak zozketatuko dituzte. Zozketan parte hartzeko ordea, aldeztu aurretik izen ematea ezinbestekoa izango da.

Apuntatzeko epea zabalik dago jada, Hurbilago elkarte-ko establezimenduetan edo www.noaua.com web orrialdean bertan funtzionamen-

duan dagoen lotura batean klikatuta.

2013AN ESKAINTZA BERRIA OIARDO KIROLDEGIAN

Urte berriarekin batera, jarduera berriak eskainiko dira Oiardo kiroldegian.

Yoga: astelehenetan, 9:00-10:30-14:45-16:15. Urtarriletik ekainera bitarte.

Ekialdeko dantzak: 10:45-

12:15.

Ur-lehor gimnasia: astelehen eta asteazkenetan, 15:00-15:50. urtarriletik martxora bitarte.

Igeriketa helduentzako: zeharkaldi ezberdinak egiteko entrenamenduak. Astearte eta ostegunetan, 15:00-15:50.

Lilatlai lasterketaren presentakuntza: Urtarriletik Lilatlai lasterketa ospatu arte. Astelehen eta ostegunetan: 10:00-10:50.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkioekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 eurotan, orain 216.000 eurotan!!! 662 056 899

75 metroko etxebizitza salgai Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkioa plazara. Amueblatua eta berri-tua. Garajea aukeran. Tel 686462705

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sail-lean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trastero eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaUA.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trastero. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trastero, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Usurbilgo kaxkoan etxe bat alokatzen da, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela, trastero eta igogailuarekin. 943 37 14 95 - 695 76 78 21 - 657 71 13 35

75 metroko etxebizitza alokai-

ruan Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkioa plazara. Amueblatua eta berritua. Tel 686462705

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

Muna Lurran bigarren solairuan dagoen pisu bat. Oraintxe sartzeko prest. 3 logela, sala, sukaldea, komuna eta balkioa. Amueblatua. 650 919 065

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trastero. 616064059 (gauetan.deitu).

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Ford Focus bat salgai, 2007. 140.000 km. 627 342 464.

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.500 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Neska euskalduna behar da ile-apaindegi baterako. Esperientziaduna, ostegunetatik larunbatetara lan egiteko. 635 20 48 16

Lan eskaerak

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005.

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edo ta klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketara lane-tan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko,

**Zorionak Aita eta Eider!**

Abenduaren

6an eta 8an izan dira zuen urtebetetzeak. Eguna ondo pasako zenutelakoan, muxu potolo bat Unai eta amaren partez.



Zorionak eta urte askuan Axier, Aner eta Ibai. Aurten piszina jarriko ditugu bosna kandela!

**Zorionak Haitz!**

Abenduaren 13an

7 urte beteko dituzu. Muxu potoloak etxekoan partez.



Zorionak Xomorro! Berrogeita hamar besarkada bero eta goxo-goxoak bidaltzen dizkiagu Manchako ziega horretako hotzari aurre egiteko baliagarriak izango direlakoan. Eutsi goiari!!

Heriotzak**Sarah Inmaculada Illarramendi**

60 urterekin hil zen

abenduaren 7an, Urdaiaga



Zorionak Miren! 3 urte bete dituzu abenduaren 10ean zorionak Amona, izeba Mila eta Ana, eta zure lehengusu Imanol,

Eli eta Aneren partez.

morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Espientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume espientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko.

662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Txamarra eta jertse bat galdu dira Atxegaldan. Udarregiraigo eta jertseko eskailera ondoan. Aurkitu badituzu deitu 660 779 160

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko palatxiki bat galdu genuen herriko

frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metaluzko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoa utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko

nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Taxia (Angel).....	607 928 770
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Eusko Tren.....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Anbulategia.....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Oa botika.....	943 376 076
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Iturralde botika.....	943 363 395
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	DYA.....	943 464 622
Haur Eskola.....	943 374 061	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Emergentziak.....	112
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Gonzalez Ehorzetxea.....	943 362 163
KZgunea.....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Popular Español.....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	BBVA.....	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Telefonica.....	1004
Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak abenduaren 13tik 23ra

Osteguna 13	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 14	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 15	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 16	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astelehena 17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea 18	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Asteazkena 19	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 21	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 22	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 23	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe.
Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Agenda abendua

13 osteguna

- **Yolanda Arrieta ipuin kontalaria.** 18:00etan Udal liburutegian. HH5 urtekoentzat.
- **Parekidetasun Kontseilua.** 19:00etan Potxoenean.
- **Ekozinemaldia.** 19:00etan Sutegin. Doan.

14 ostirala

- **Ekozinemaldia.** 19:00etan Sutegin. "The pipe" eta "Otro mundo es posible-La abuela grillo" filmak. Doan.

15 larunbata

- **Jostailu Erabilien Azoka.** 11:30etik aurrera frontoian.

Larunbatean egingo da VI. Jostailu Erabilien Azoka

Nire zuretzat, zurea niretzat... aizu, tori eta ekarri hori!" le-mapean, VI. Jostailu Erabilien Azoka antolatu du Hitz Aho Udarregi Ikastolako Gurasoen Elkarteak. Urtero moduan, azokarako jostailuak aldeztu aurretik jaso behar dituzte. Abenduaren 12tik 14ra, 17:00-19:00 artean Sutegiko erakusketa aretoan. Azoka egunean, ikusgai dauden jostailuak norberak etxetik eramandakoekin trukatu ahal izango dira. Jostailuen berrerabilera sustatzea baita ekimen honen helburu nagusia.

Azoka honetan parte hartzeko zenbait baldintza bete behar direla gogorarazten du antolakuntzak:

- Jostailuak osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena mu-



Azoka 11:30ean hasi eta 13:30ean amaituko da.

sutruk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.

-Azoka egunean jostailuak trukatzeko 8 urtetik beherakoek arduradun batekin parte hartu beharko dute.

-DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute. Azokaren bukaeran gertatzen diren jostailuak beharra duten erakundeetara bideratuko dira.

Datozenak

Igande honetan, Santo Tomas azoka

Babarrun eta sagardo lehiaketak egingo dira igandean, Santo Tomas azokan.

Izen ematea ostiral honetan amaituko da. Informazio gehiagorako, 943 360 321 telefono zenbakira deitu edota NOAUA!ren egoitzara hurbildu.

Sagardo lehiaketarako, partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketarako, partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du eta 12 euro ordainduko zaio. Bi lehiaketetan, sariak hauek izango dira:

1. Sarituarentzat: 150 euro+txapela.
2. Sarituarentzat: 90 euro.
3. Sarituarentzat: 50 euro.

Aurten, Azokak irauten duen denboran, gaztainak banatuko dira.

Kantu jira

Santo Tomas egunean kalejiran ibiliko dira Kantu Taldekoak. Egurdiko 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Base-ritarrez jantzita agertzeko deia egin dute.



Sorturen eratze prozesua

Ildo politikoa izango da datorren batzar honetan jorratuko den gaia. Hitzordua, larunbat honetarako, abenduaren 15erako finkatua dago.

Etiopiaren aldeko erakusketa

Etiopiako Wukro herriaren aldeko argazki eta koa-dro erakusketak hiru egun iraungo ditu, abenduak 18, 19 eta 20. Bisita orduak: 17:00-20:00.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

hurbilagoren gabonetako saria

*Aste buru baterako egonaldia, pentsio osoan,
bi lagunentzat ur termal eta masajerako sarrerekin.*

URDUÑAKO AISIA HOTEL***BAINUETXEAN

*Zozketan parte hartzeko txartelak banatuko dira
abenduan zehar Hurbilagoko eztablezimenduetan.*



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkartea



Usurbilgo Udala

Usurbil
osasuna atez ate



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO



Gure hezkuntza eredu bateratua



Aukera desberdinak eta alternatibak
landu, eztabaidatu eta eraikitzeko hirugarren saioa.
Abenduaren 19an, asteazkena, Potxoenean
arratsaldeko 18:30etik 20:30era.

0-16 hezkuntza
proiektua zehazteko
usurbildarrok
etorkizunerako
nahi dugun
hezkuntza-eredu
bateratua



Usurbil



Nahi dugun eskola